

Goier Taldea

GOIENER, BURUJABETZA ENERGETIKOA SUSTATZEN EUSKAL HERRIAN

Ingurumena errespetatzen duen eta justua den energia eredu bat eraiki nahi du Goier Taldeak. Bide horretan, bost ikastolatan instalazio fotovoltaikoak sustatuko ditu energia modu lokal eta banatuan sortzeko.

Goiener Taldeak %100 berriztagarria den argindarra merkaturatzen du, sorkuntza proiektuak bultzatzen ditu, aholkularitza lana egiten du eta bere helburu berberak dituzten erakundeekin lankidetzan dihardu, beste hainbeste gauzen artean. Halaber, hurbilak izatea, konfiantza sortzea, aniztasuna onartzea, garden jokatzeko, parte hartzea bultzatzea, eta kontuan izatea pertsonen premiak eta arreta berebizikoa iruditzen zaio energia eredu berri hau eraikitzeko.

Ingurumena zaintzen duen eta justua den energia eredu bat eraiki nahi du Goier Taldeak. Horretarako, zenbait proiektu martxan jartzen ari da. Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba da Goier Taldea. Baina Goier Taldea batez ere bolondresgoa da. Proiektua bolondres talde baten eskutik sortu zen eta hori du gaur egun bere aberastasuna, pertsonen balioa, horrek desberdintzen du. Izan ere, bolondresak egunerokotasunean ari dira lanean lan-taldeen artean, erabakiak hartzeko prozesuetan eta gizartera begira egiten duten guztian.

GOIENERREN BALIOAK

Goier Taldea Euskal Herrian erreferentzia den energiaren sektoreko irabazi asmorik gabeko kooperatiba herritarra da: lan profesionala eta boluntarioa uzartzen dituen, bizitza erdigunean jartzen duena eta eraldaketaren alde lanean ari dena. Hori guztia bermatzeko, ondorengo balio hauen arabera lan egiten du: **Erabakiak elkarrekin hartu:** Goier Taldearen erabaki guztiak boluntario eta bazkide guztien artean modu adostu batean hartzen dituzte.

Barne demokrazia eta garden-tasuna sustatu: Kooperatiba he-



Goier Taldeak bere bazkideei erabat berriztagarriak diren energia iturriak eskaintzen dizkie. Besteak beste, instalazio fotovoltaikoak ipintzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. GOIENER



Laskorain Ikastolako eta Goier Taldeko ordezkariak hitzarmena sinatzerako momentuan. GOIENER

rritarra den aldetik, berdinen artean lan egin eta erabakitzen da, bazkide bat bozka bat delako.

Genero ikuspegia txertatu: Emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko.

Gertutasuna bermatu: Goier Taldeak, kooperatiba herritarra izanik, tokiko garapen ekonomikoaren aldeko lana egiten du. Gertu daude eta gertukoak dira.

Pertsonak lehenetsi: Pertsonak

erdigunea dira, bazkideak izanik kooperatibaren oinarria.

GOIENER ETA SORKUNTZA

Goier Taldeak 2013tik bere bazkideei %100 berriztagarria den energia eskaintzen die, energia mota honen eskaera handituz merkatu elektrikoan. Gaur egun, 11.600 bazkide baino gehiago ditu kooperatibak eta 14.500 kontratu

baino gehiago kudeatzen ditu. Hastapenetatik energia sortzeko nahia bazuten ere, traba legalak medio, Goiernerrek merkaturatzaile bezala soilik ekin zion. Hala ere, kooperatibaren azken helburua ahaztu gabe –bere bazkideek kontsumitzen duten adina energia sortzeko gaitasuna izatea– 2018an Sorkuntza egitasmoa abiatzea erabaki zuen.

Sorkuntza egitasmoaren jatorria Goier Taldearen energia berriztagarriko proiektuak garatzeko konpromezuan dago. Hala bada, jatorri berriztagarriko energien instalazioa ahalik eta banatu, lokal eta deszentralizatuenak sustatzea, eraikitzea eta erostea da bere xede nagusia.

Egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko Nafarkoop Energia S. Koop. sortu zuten. Bigarren kooperatiba hau energia berriztagarrien sorkuntza proiektuetan inbertsioak egiteko eratu den lanabes juridikoa da Goier Taldearen barruan, eta gaur egun 750 bazkide baino gehiago ditu.

2020 urtea baino lehen, Nafarkoop kooperatibak hiru proiektu martxan jarri zituen: Oñatiko Ur Jauziak S.A. udal erakundearen %10eko parte-hartzearen erosketa, Fagollaga S.A. zentral hidroelektrikoaren erosketa eta I-Enerren proiektu fotovoltaiko-

en finantzazioari laguntza. Proiektu hauek aurrera ateratzeko kooperatibako bazkideek 800.000 euroko ekarpenak egin zituzten Nafarkoop kooperatibak irekitako ekarpen leiho ezberdinetan. Honako hauek dira Sorkuntza egitasmoa instalazioen datuak 2019an:

Sortutako energia: 14 GWh.

Ekidindako isurpenak: 1.200 Tm CO₂. 135.000 zuhaitzek urtean xurgatzen dutena. 3.000 Kg SOX eta 3.400 Kg NOX.

SORKUNTZAKO AZKENEKO PROIEKTUA

Eta aurten, Sorkuntza egitasmoa laugarren proiektua iritsi da: Euskal Herriko bost ikastolatan instalazio fotovoltaikoak jartzeko ekarpenak egiteko leihoa zabaldu eta dagoeneko jasoak dituzte bazkideei eskatutako 400.000 euroak. Lortutako ekarpenak Gasteizko Armentia, Fontellaseko Argia, Tolosako Laskorain, Etxarri Aranzko Andra Mari eta Bermeoko Eleizalde ikastolatan autokontsumo proiektuak garatzeko erabiliko dira.

Kooperatiben arteko ekimen honen helburua da modu lokal eta banatuan energia sortzea, dituzten baliabideei probetxua ateraz eta ardatz nagusia herritarren partaidetza izanik. Modu horretan, ikastola horiek, autokontsumoaz baliatuta, euren argindarraren faktura murrizteko aukera izango dute, eta, aldi berean, programa pedagogiko bat garatuko da ikasleak, familiak eta irakasleak energiaren, iraunkortasunaren eta eraginkortasunaren inguruan hezteko. Goier Taldea izango da proiektu hau aurrera ateratzeko eta finantzatzeko arduraduna. Ekarpenak egiteko aukera irekia izan da bazkide guztientzako eta eredu energetikoa aldatu nahi dutenentzako.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.goiener.eus